

1917tik...

Luis Ceniga



Luis Maria Ceniga Mundakan jaio zen 1881ean eta hil Bilbon 1948an. Lekeitioko medikua izan zen 1916tik aurrera baina lehenago ere egona zen mediku Lekeition 1906an bere osaba, -hilondoko aitagarreba- hil zenean. 1916an Estatu Batuetara joan zen haginlaritza ikastera eta 1917an lehengusinarekin ezkondu zen, Maria Luisa Ceniga lekeitiarrarekin. Hogei-hogeitabat urtez izan zen gure medikua, gurea eta familia inperialarena ere bai. Zita enperatrizarekin eta haren fami-

liarekin izan zuen harreman bereziaz gehiago jakin nahi baduzue irakur ezazue Kurik 3an Maite Garamendik idatzi zuen artikulua "Luis Maria Ceniga Arriandiaga", benetan bitxia!

Mediku ona izan zela ezagun da, Maiteren artikuluan argi uzten da hori, baina ez dakit ba argazkilari hobea ez ote zen. Harrituta utzi gaituzte argazki horiek, benetan profesionalak ere sinatuko lituzketenak. Ondo merezita du liburu honetan eskaintzen diogun tartea.









Ceniga familiaren artxiboa

